


www.noa.iaa.com
N **u** !



Abizenak euskaraz
ipintzeko kanpaina berria



Sagardoaren lurraldea,
Sagarrondotik mundura

EUSKALTEGIKO 2. MATRIKULAZIOA IREKIA

Maila guztiak
EGA ikastaroak
Hizkuntza eskakizunak
Alfabetatzea

Ordutegia: Goizez, arratsaldez eta gauzez



LANGABETU, IKASLE ETA GURASOENTZAT
MERKEAGO!

Kale nagusia 43, behea Telf: 943 37 20 01

ALKARTASUNA KOOPERATIBA

Alkartasuna kooperatibako produktu berriak



Babarrunak, babak, taloak egiteko hiriña,
intxaurrak, urrak...

Ugarte Industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

ERRETEGIA ARRATZAIN TOLARE-SAGARDOTEGIA

Arratzain Zahar
Basuria
Telf: 943 58 09 74
20170 USURBIL



- Urtarriletik apirila arte sagardotegia irekita.
Urte osoan erretegia.
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- 150 lagun, eserita nahiz zutik

KOADERNATZEKO GARAIA DA!



2003ko NOAUA! guztiak koadernatzeko garaia da.
Ez utzi azken ordurako. Tapak eta aurkibideak
NOAUA!ko egoitzan, Lizardin edota Lauroken
eskura ditzakezu: - Tapa edo azala, 3 euro
- Aurkibidea, 1,20 euro
- Bazkideak doan
Koadernaketa Lizardin edo Lauroken: 11 euro

Txirrikitutik



Argazkilaria: Antton Elizegi, Udal Fototeka
1974. urte ingurua Kaleberri

Guztiok dugu gogoan Usurbilgo txirrista famatuena. Ederra eta zoragarria izateaz gain, seguru Euskal Herriko altuenetakoa izan zela, altuena ez esatearren. 2001eko maiatzean desagertu zen ordea herriko txirrista sonatu hau.

1974. urte inguruan Antton Elizegi argazkilaria ateratako argazki honek, txirrista estrenatu zen unea azaltzen digu. Oraindik plaza bere osotasunean amaitu gabe egon arren (txirrista eusten zuten egurrak oraindik jarrita ikusten dira), herriko haurrek ilusio handiz disfrutatu zuten txirrista erraldoia. Bertako plaza eta jolastokia Jose Luis Zumetak diseinatu eta prestatu zuen. Jolastokiaren kasuan, aparailuak berak aukeratu zituen eta horretarako Suecian zeuden jolastokiak hartu zituen eredutzat.

30 urtetan txirrista honek hainbat istripu eragin zituen eta, hauek murrizte aldera Udalak behin edo bitan moztu eta ondoren, estalkia ere jarri zion, baina 2001eko maiatzean jolastokia erabat kentzea erabaki zuen. Nostalgiaz gogoratuko dugu txirristaz gozatzeko aukera izan dugun guztiok.

Zalao Arnaiz Ibaguren



OHARRA: Udal fototeka herritarren zerbitzura dago eta horretarako atek zabalik ditugu bertako funtzionamendua ezagutzeko, argazkiren bat ikusi edo eta eskatzeko, herriko argazki zaharren bat udal fototekara digitalizatzeraz ekartzeko... Jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9'00etatik 14'00etara). Telefonoa 943 371951 eta e-posta: fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net
Garai bateko argazkien bidez gure herria ezagutzeko aukera izango duzu. Anima zaitez!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainar Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe eta Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, AINHOA AZPIROZ _____ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. URR.

KONTZEJU TXIKIA _____ 10. URR.

Euskal Txokoen hitzarmena
uztaila bitarte luzatu da



SAGARRONDOTIK DATOR JAI-GIROA _____ 12. URR.

KEZKA ERAGIN DU ERRAUSTE-PLANTAK _____ 14. URR.

ALDIZKARIAREN EDIZIO ELEKTRONIKOA _____ 16. URR.

OIHANA BLANCO, ATHENASERA BEGIRA _____ 17. URR.

REDDY, NOAU! TXIKIKO LAGUN BERRIA _____ 18. URR.

AMADOR GRANADO, SEI ORDUETAN _____ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Sagardoa gurtuko da Sagarrondotik jaialdian.

Zutabea !



AINHOA AZPIROZ

Ametsak

A metsak ez ditugu guk aukeratzen. Ala bai? Orain dela gutxi izerditan eta arnasestuka esnatu nintzen gauean. Segundu batzuk behar izan nituen amesgaizto batetik esnatu nintzela konturatzeko. Zulo ilun eta luze batean behera erori nintzen eta izugarriko abiadan nindoan behera, eta behera, eta behera, sekula bukatzen ez zen zuloan barrena. A ze larritasuna! Berriz lo hartzeko beldurrez nengoen, zeren batzuetan gertatu izan baitzait berriro lo hartu eta ametsarekin jarraitzea. Zuei ez? Zenbaitetan, ordea, horixe nahi izaten dut: amets on batetik esnatzen naizenean, berriz lo hartu eta istorioarekin segitzea. Eta batzuetan lortu izan dut!

Gauero egiten omen dugu amets, eta bat baino gehiago, gainera. Baina gero gogoratzeko izaten dira komeriak. Ametsetan ibili eta berehala esnatuz gero, gogoratzen naiz normalean; baina gero goizean, ahaleginak egin arren, ez naiz ezertaz akordatzeko. Beste batzuetan, berriz, bai. Detalle guztiak gordetzen ditut buruan, istorio osoa, goitik behera. Hori bai, gero norbaiti kontatzen hasten naizenean, istorioak ez duela zentzurik konturatzen naiz, ez buru eta ez hanka. Kurioa da!

Kontuak kontu, ez dago gure esku ametsak aukeratzea, esna gaudela egiten ditugunak kenduta, noski. Txikitan, baserrian geundela, ahizpa gazteenak hala esan zigun beste bioi. "Gaur gauian txerriya atzetik segika datorrela ingo det amets, ta aldapa hortan gora jungo naiz korrika". Beste biok barrez hasi ginen. "Baño ametsak ezin dia planifikatu! Zuk ezin dittuzu asmatu! Ja, ja, ja!".

Ez dakit ulertu ote zigun, baina orain dela gutxi bera etorri da barrez. "Goatze altzate nola esantziatzuen ametsak ezintziala planifikatu? Ba, japoniarrek bai". Sinesgaitz begiratu genion. "Ze ai da esaten hau?".

Kontua da, japoniarrek beste asmakizun berri bat egin dutela: ametsen tailerra. Makina edo aparatu txiki bat da eta buruaren ondoan jartzen da oheratutakoan. Bertan musika, parfumea, amets egin nahi duzun pertsonaren argazkia eta grabatutako hitz batzuk jartzen dira. Behin lo hartutakoan, makinak REM aldia moldatzen omen du eta ametsak eginarazi. Pentsa! Hamaika ikusteko jaiok gara!

Hori bai, aparatua merkaturatu duen enpresak ez du ametsik bermatzen.

Ika-mika !

Aurreko aleko kronika bati erantzuna

Urtarrilaren 23an NOAUA!ko Kalejiran, Santueneko berriemaileak idatzitakoari (*Auzoko jendea ume talde baten beldurpean*) erantzuna:

Santuenean "beldurgarriak" omen diren umeak, umeak baino gaztetxoak direlakoan nago.

Egoera zuzendu edo normalizatzeko bidea, beraiei aurre egitea auzo (nahiz herri) mailan luzatzen den deialdia, lekuz kanpo ulertzen dut.

Egoera kezagarria deritzot: batetik,

jendea ikaraturik, talde batek adierazten duen eraso eta errespetu faltarengatik. Bestetik, zenbait gaztetxo (11-16 urte bitartekoak?) **auzo isolatu batean bizi direnak, non ez duten inolako baliabiderik euren denbora librerako.**

Honela, talde honek eragin dezakeen ikarak eten behar duela, begirunez jokatu behar dutela bidezkoa deritzot.

Euren denbora libre ahalik eta modu osasuntsu eta hobereanean igaro ahal dezaten, horretan laguntzea bidezkoa

deritzot ere.

Nerabeekin batera gatazka edo zailtasun egoerei aurre egitea konplexua da oso. Bidea edo gakoa beraiekin komunikazioa eratu eta elkar ulermen batera heltzean datza.

Guztion elkarbizitzaren mesederako.

Alex Tello Arostegi.

Gizarte Hezitzailea adin txikikoak eta gazteekin, 2004ko urtarrilaren 27an.

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK ONARTU BERRI DUGUN ARAUDIA BETE BEHARKO DU.

HALA EZ BADA, NOAUA!k IDATZI HORI EZ ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Otsailak 20. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Otsailak 13.

e-posta bidez: erredakzioa@noaua.com

Xabier Arregi: "Gu bi udalerrien menpe gaude"

Zubietak duen egungo status juridiko-politikoaz hitz egiteko mahai berri bat osatu dute Donostia, Usurbil eta Zubietako Herri Batzarreko ordezkariak. Xabier Arregi mahai horretan parte hartzeko enkargua jaso du.

Igeldokoak aginte-molde propio bat negoziatzen ari dira Donostiako Udalarekin. Zubietan osatu den lantalde berriaren zeregina ere hori izango al da, aginte-molde propioa adostea?

Oraindik ez da lanean hasi lan-talde hori, eta alde zurretik zaila da zehaztea noraino iritsiko den. Jaso duen enkargua garbia da: Herri-Batzarraren izaera aztertzea, orain arteko ibilbideaz hausnartzea, eta etorkizunari begira lege-euskarri eta eskumen sendoagoak finkatzea. Horri guztiari forma eta edukia ematen saiatuko da lan-taldea. Beraz, badu Igeldokoek egin dutenarekin zerikusia. Azken batean, udalerrien azpitik dagoen herri-administratzaion erakunde baten izaera zehaztu behar da, eta horretan oso esperientzia eskasekoak gara. Bide berria urratzea egokitu zaigu, eta gainera oztopo zail bat gainditu behar dugu: gu bi udalerrien menpe gaude.

Baina Zubietak ba al du eskumen zabalagoa bereganatzeko aukerarik?

Igeldok desanexioaren bidean aurrera egin du, eta jakin izan du jarri dizkioten oztopo legalak saihesten. Oraindik ikuskizun dago noraino ailegatuko diren, baina beren helburua lortzeko prozesua ez da eten.

Zubietaren kasua oso bestelakoa da. Guk ez dugu seriooki planteatu desanexioaren aukera, besteak beste, oraingoz

baldintza soziologikorik ikusten ez dugulako. Gu geure nortasunari eusten saiatu gara, bi udalerrien menpe egonagatik. Eta horretarako behar-beharrezkoa zitzaigun erakunde propio bat martxan jartzea. Garai bateko "Alkatetza Pedaneo" haren pareko erakunde berreskuratu nahi genuen, hortik hasi nolabait. Horrela sortu zen gaur egungo Herri-Batzarra. Baina, zoritxarrez, eskumenen arloan urruti dago Herri-Batzarra garai bateko Alkatetzatik. Eta hutsune hori konpontzeko asmoz sortu da lan-taldea. Iruditzen zaigu gaur egungo legeriak ematen dituela horretarako aukerak. Borondate politikoan dago gakoa. Borondatea badago, nolabait aurkituko da formula legala.

Kuartela, kartzela, errausketa-planta... denon ahotan diren "mamuak" dira horietan.

Galdera horiei zehaztasunez erantzun nahi nieke; baina, nik behinik behin, ez daukat informazio fidagarriarik. Horrelakoetan ohikoa denez, zurrumurruek dira nagusi.

Antza denez, kuartela eta kartzela pakete berean datoz. Benetako egitasmoak dira, nahiz ez dakigun zenbateraino dagoen aurreratuta proiektua. Loiola-Martutene aldeko erriberak oso erakargarriak dira etxegintzarako, eta kuartelak eta kartzelak traba egiten dute han. Beraz, interes ekonomiko handia dago kuartela eta kartzela handik mugitzeko. Nora eramango dituzten? Ez dakit, baina bi aukera aipatzen dituzte, eta horietatik bat Zubietara da.

Errausketa-planta Urnietan egitekoa zen; baina urnietarrek bikain eta gogor



XABIER, GAUR EGUN, ZUBIETAKO HERRI BATZARRETIK KANPO DAGO.

erantzun dute, eta administrazioa zer egin ez dakielako orain. Ezkutuan ari dira, benetako eztabaida saihestu nahian, eta ez dakigu zein asmo duten. Hondakinak tratatzeko dauden aukera guztiak ondo aztertu behar dira. Errausketa-planta egiteko interes ekonomiko handiak daude. Horregatik egin nahi dute orain kosta ahala kosta. Baina herritarrontzat ondorio oso kaltegarriak ekarriko lituzke. Beraz, ez dut uste errausketa-planta egin behar denik.

Igeldon herri kontzientzia ondo jorratu omen dute. Zubietak gainditu behar duen asignatura al da hori?

Herri kontzientzia egunez egun landu behar da. Igeldon, desanexioaren gaia dela eta, astindua eman diote beren herritartasunari. Zubietan ere, orain dela urte batzuk baino sendoago gaude. Gogo eta ilusio handia dago herrigintzan aritzeko. Umeen, helduen eta zaharren artean, zubietartasuna bizi-bizirik dago. Arazoa da eraso handiak datozkigula, eta gu gutxi eta txikiak gara. Ingurukoan laguntza ere beharko dugu.

Imanol Ubeda

"Hirigintzatik herrigintzara pasa behar dugu"

Nolako itxura hartzen diozu Zubietara "berriari"?

Ez da erraza gaur egun Zubietari itxura hartzea, zeharo desitxuratuta dago eta. Sentipen kontrajarria dugu zubietar askok: batetik, herria hankaz gora ikusteak kezka sorrarazten du; bestetik, herri gisa irauteko premia handia zen etxebizitzak-eta eraikitzea, eta orain begien bistan ditugu eraikin horiek.

On eta txarrak epaitzen hasita, txarretik hasiko naiz: nire gusurako urbanizazio gogorregia egin da, berde gutxi eta hormigoi asko. Urbanizazioa oso garesti aterata da, eta gainera lardakeria asko egiten ari dira. Paisaiaren aldetik xarma eta naturaltasuna galdu du Zubietak.

Alderdi onei begiratuz gero, azpiegitura mailan premia izuga-

ria zegoen: urak, gasa, telekomunikazioak... Horien guztien premia zegoen eta horretan dezente hobetu da (ez dezagun ahaztu, hala ere, oraindik zubietar askori ez zaizkiela iristen azpiegitura horiek).

Aurrera begira, hirigintzatik herrigintzara pasa behar dugu. Herria egiten hasi behar dugu: jende gazte ugari inguratuko da, frontoi estalia izango dugu, eskola indarberitu egingo da, lokalen bat gehiago izango dugu... Gizarte arloko hobekuntzek justifikatu behar dute eraldaketa hau. Hortxe dago koska. Giza paisaia indartu behar dugu.





ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Kilometroak 2004, urriaren 3an

Dakigun bezala, iazko Kilometroak 2003 Lazkaon ospatu zen, San Benito ikastolaren alde eta bertako Maizpide euskaltegian, ikastolen aldeko jai honen sortzaileak omendu zituzten 2003-ko urriaren 7an. Ondoren, Orio eta Zarautzeko hiru ikastoletako arduradunek, 41. edizioaren antolaketa-rako arduraren testigua hartu zuten.

Bi herri eta hiru ikastola murgildu dira 2004ko Kilometroak antolatzeko lanetan. Lehen aipatu bezala, Zarautz eta Orio dira herriak eta Orioko Herri Ikastola, Salbatore Mitxelena Ikastola eta Oteiza Lizeo Politeknikoa antolatzailerak.

Pako Serras zarautzar artistaren lanetan oinarrituta daude 2004ko Kilometroetako irudia eta leloa. «Itsaso zahar, olatu berri» da leloa, eta antolatzailerak honela definitu zuten: «Euskararen eta ikastolen betiko itsaso zabal zaharretik sortuz eta indarrak bateratuz, gu guztion trainerua aurreraino bultzatuko duen olatu berria izango da 2004ko Kilometroak».

Iazko azaroaren 28an egin zuten Kilometroak

2004-ren aurkezpen ekitaldia Orion. Antzerkia, musika, dantza, irudia eta poesia uztartu zituen ikuskizunak. Kilometroak jaiaren arropa aurkezteaz gain, ikasleek aurkezpenean parte hartu zuten, baita Andoni Egaña eta Joxe Angel Iribar zarautzarrek eta beste hainbat oriotar ezagunek ere. Ikusgarria, hunkigarria izan zen benetan.

Bestalde, abenduaren lehen egunetan bi denda zabaldu zituzten 2004ko Kilometroetako arropekin; Zarautzen bata, eta Orion bestea. Benetan merezi du denda horietan zer dagoen ikustera gerturatzeak, hantxe aurki baitaitezke jertseak, galtzak, nikiak, diruzorroak, etabar luze bat.

Beraz, badakizue irakurleok, bueltatxo bat eman beharko dugu Orio eta Zarautz aldera urriaren lehengo igandean. Bertan ikusiko garelakoan agurtzen naiz.



Herri perfektuen bila



ENEKO
HARREGUY
ARTZE

Kaleberri

“Herri perfektu baten bila gabiltza. Eta gure herria ez da, nonbait, perfektua. Ez da perfektua, herri txikia izanik, denok ezagutzen dugulako elkar, eta beraz, bat bestearen ahotan ibil daitekelako, ez dakit eta badakit zer egin duelako.

Gustora biziko nintzateke, hiri handiago batean. New Yorken adibidez. Inork ezagutzen ez nauen herrialde batean. Inori azalpenik eskatu gabe edozer gauza egin dezakedan herri batean. Inork gaizki begiratu gabe, atzera eta aurrera jo dezakedan hiri batetan... Usurbil ez da horrelakoa eta Usurbil kaka zahar bat da. Salatu egiten du jendeak, berak ez bestek egindako zerbait gaizki bailegon. Ezin zara lasai ibili”.

“Zerbait gehiago?” galdetzen dut nik. Horrelakoak gara usurbildar guztiok? Horregatik diozu herri honetatik alde egin nahi duzula? Ez duzu beste arrazoibiderik? Ez duzu kalean jendea agurtu nahi? Kaleak jendez gai-

nezka dauden lekuan, bakarrik sentitu nahi duzu? Ez duzu kalera jaitsi eta inori deitu beharrik gabe, konpainian, kaferik hartu nahi? Ez duzu jende gutxiago dagoen tokian, babestua sentitu nahi?

Bizi kalitatea deitzen diot, neurri batean, nik horri. Neurri batean diot, ez naizelako akaso, beste neurri askotan sartu. Esaterako, eta gutxi batzuk baino ez ditut aipatuko, lasaitasuna, kutsadura (ez gara gure herrian semaforotan geldituta dauden autoen keaz hainbeste arduratuko), ata euskaldunontzat (eta gainerakoentzat ere hala beharko luke) arunt garrantzitsua dena: jatena. Azken finean, kalitatea.

Niretzat, gauza bat izango luke ona New Yorkera joateak: are gehiago estimatuko nukeela gu bizi garen herrian, eta ziur, zerbait ere ikasiko nukeela kantuan, Iparragirreraren “Hara nun diran” etengabe abestuz.

Bota egin dute gobara

Aurreko aldizkariko erreportajea ez da oharkabean pasa. Kalezarren zegoen gobara desagertzar zela aipatzen zuen. Honen haritik, hainbat herritarrek idatzi hau sinatu eta hemen publikatzeko eskatu digute. Hona hemen Pedro Mari Matxainek ekarritako idatzia:

“NOAUA!n agertutako informazioa irakurri eta gero, hemengo gobara jotzeko eta estalkiari buruz sinadurak biltzen ari garela, gure ezustekoan, bota egin dituzte. Artzabalgo urbanizazioa egitea erabaki zutenean, bai gobara, jotzeko harriak eta estalkia mantentzea erabaki zen. Horiek bertako jendeak eginak baitziren, Fermin Ezkerrenekoak eta Joxe Makazaganeok. Geroago, baita eskilarak egin ere. Herri lanean. Horiek guk ezagututakoak eta guk parte hartutakoak dira. Zergatik bota? Nork agindu du? Azalpena ematea egokia litzateke. Ez dugu sinadura gehiago biltzeko denborarik izan.



Pedro Matxain, Iker Arrastoa, Paulino Dominguez, Karmele Matxain, Peio Larrañaga, Angel Matxain, Josefa Maiz, Mertxe Aizpurua, Karmele Elizalde, Virigina Rikondo, Garbiñe Sarasua, Elena Rikondo, Lurdes Salaberria, Sara Azkarate, Jose Sarasua, Agustin Martikorena, Joxeba Sarasua, Mari Karmen Aizpurua, Erramun Erro, Joxe Makazaga”.

Kalezar



AINARA
URIBE

Malkarra auzo bihurtua

Kaixo denei! Oraingoan azken alean azaldutako Atxegaldeko argazkiari begira jarri naiz. Orain dela 30 urte inguru, zer nolako terrenoak zeuden ikusten da: aldapatsuak, malkarrak... benetan toki kazkarra. Seguruenik garai batean baserritarrak belarra biltzen ibiliko ziren.

Nahiz aldapa edo tokirik txarrena izan, aprobetxatzen zen ganaduari emateko, Nafarroatik ez baitzen lastorik ekartzen. Atxega inguruko terrenoak ez ezik, gainerako tokietan ere zelaiak eta malkarrak txukun asko egon ohi ziren; beste bizi modu bat zen, oso desberdina. Orain, aldiz, gehienbat industria dugu ogibide eta bizi modua erabat ezberdina daukagu.

Aitona-amonak diotenez, jendea oso ondo bizi da orain, baina nik esango nuke estresatua; zenbat eta aurrerapen gehiago, orduan eta gauza edo leku gehiagotara iritsi nahi. Seguru, lehenago diruz flako ibiliko ziren, baina lasaiago bizi.

Atxegalde edo 18 poligonoan ederki moldatu zituzten terrenoak aldapatsuak izanik ere etxebizitzak egiteko. Auzo-egintza izeneko taldea aritu zen lanean, baita etxe mordo ederra egin ere. Industrietatik bizi garen guztioi ongi etorri zaigu txoko hau etxez bete izana eta pozik bizi gara, Alperroburu, Goiko, Erdiko, Beheko eta Aristitxoko bizilagunok.



Atxegalde



IONE
EIZMENDI

ZALOA
LEOZ

Santuenea

Biziberritze premian

Sarritan pentsatu dugu Santuenea kaxkotik Surruti dagoen auzoa izanik auzo ahaztu xamarra dela, bertakoa behar zela izan auzo honetan bizitzeko. Jendearen joera auzotik joatekoa izan da bertan geratu orde. Askok pentsatuko zenuten azken urteotan etorkinak eta herrikoak ez direnak izan direla hona bizitzera etorri direnak. Baina ez.

Auzo honetan, gazteak ez dute aukera handirik izan bertan geratzeko. Etxebizitzik ez baita egin aspaldiko urteetan, baina, gutxi batzuk bakarrik izan bagara ere, hemen gara beste auzo batzuetatik etorritakoak ere. Esan beharrean nago, bere xarma duela auzo honek. Umeak jolasteko parkea, eskubaloio edo futboleko kanpoa, zaharren egoitza, taberna eta jatetxe atseginak... Pasioan ibiltzeko ere aukera ederrak ditugu, bai Txokoalde eta San Esteban aldera edota Zubieta aldera. Azken egunotako eguraldi ederra lagun izanda lasai lasai, paraje ederrak ikusteko aukera izaten da ttipi-ttapa, edonora abiatuta ere.

Bestalde, ziur nago, bertako jende askok biga-



rren etxea erosteko aukera izan duela eta beste leku askotan bezala etxe ugari daudela hutsik. Irteera polita izango litzake alokairuan jartzea eta horretarako udalak ere bere laguntzak ematea, bai egokitze lanak egin ahal izateko... Majina bat gazte animatuko litzateke, nahiz eta kaxkotik urrutixeago egon, bertara bizitzera etortzera. Ez litzateke txarra izango auzo honi, denen lagun-tzarekin, biziberritze bat ematea.

Eguraldia erotuta

ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Urtarrilak 26, astelehena. Goizeko 8:00ak dira eta kazkabarra ari du indartsu. Alerta egoeran omen gaude: elurra egingo duela, haize indartsuak... Hotza dugu nagusi goizeko ordu hauetan.

Aste osoa eguraldi txarrarekin pasa ondoren...

Otsailak 1, igandea. Eguzkitsu esnatu zaigu eguna. Eguzkitsu eta epel. Amak eguerdian eguzkitan jarri du termometroa eta 36 gradu markatzen ditu. Etxetik irten aurretik bi aldiz pentsatu dut txamarra hartu edo ez hartu. Baina ahaztu egin al zait neguan gaudela? Momentu batez maiatzeko arratsalde gozo batean aurkitu nai. A ze komeria!

Esaten da gizartearen, orokorrean, jendea "eroa-go" dagoela. Ero hitza agian ez da egokiena baina gero eta jende gehiagok ditu gaisotasun psikologikoak. Hori ikusteko, nahikoa da gure auzoko sendategira hurbiltzea. A ze obrak ari diren egiten! Haunditu egin dute, pintatu... modernizatu. Nonbait badago honelako zen-

truen beharra.

Erokeria honek, nonbait, pertsonengan eragiteaz gain, bere esparrua zabaltzen hasi da eguraldian ere eraginez.

Bai, bai..."Eguraldi Jauna" erotu egin zaigu edo bestela ahaztu egin zaio otsailari dagokion urtaroa **negua** dela.



Errege Eguna eta Sendotza

Errege egunean ospakizun ederra ikusteko aukera izan genuen elizara hurbildu ginen guztiak. Goiko argazkian, Joxe eta Maria, Hiru Erregeak eta artzai talde polita ikus dezakegu Luis apaiza erdian dutela. Eskerrik beroenak dena antolatu eta eliza apain eta dotore jartzen lan egin duten guztientzat.

Beheko argazkian, berriz, Sendotza egin zuten bost gazteak azaltzen dira, urtarilaren 25an, igande, eginiko argazkian.

- Elisabet Eizagirre.
- Aloña Esnaola Bereziartua.
- Ioseba Errazti Murua.
- Leire Bereziartua Errazti.
- Ane Manzisidor Agirre.

Gotzai jauna, Juan Mari Uriarte izan genuen gure artean, Luis Aranalde eta Manuel Pagola laguntzaile izanik. Egun berezia izan zuen gazte talde honek eta eskertu zioten gotzaiari bere presentzia eta emandako aholkuak. Meza ondoren, bertako soziedadean hamaiketako goxo-goxoa eskeini ziguten bost gazte horien gurasoak. Dena oso ondo antolatu zuten. Beraz eskerrik asko egin zuten lanagatik.



Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Kandelario bero

Zubietako plaza hutsik izaten da garai honetan. Hotzak eta euriak jendea etxean gordetzen du. Euritsu askotan, haize gogorra tarteka, kazkabarra inoiz: etxe giroa. Eguzkia eta epela denon amets. Katua bera ere zain gurean, norbait noiz etorriko, ustekabeen gurekin batera etxean sartzeko.

Hotzak dira bazterrak ere. Lehengoan esaten zuen bizilagun batek ez ote genbiltzan motelago herrian. Gogo faltan ulertu nion nik, gauzak aurrera eramateko– badakizue, gurasoen kontuak–. Hemen ere hotz.

Baina horrelako hotzik ez balitz, ez genuke horrenbesteko estimuan izango geroko uda. Garai honetakorik gabe, lan isil eta ezkutukorik gabe, ez litzateke geroko alaitasunik.

Orain ari da sugea geroko azala egiten; orain ongarritzen zelaiak; orain ikasleak ere lanean, ez baitute monotonía uxatzerik ikasgelako leihoeetatik kanpora begiratura ere. Orain ari dira Zubietako festak prestatzen batzordekoak;

orain hasiko dituzte dantza taldekoek entsaioak... Orain eta hemen – plazan eta astebururo-bizilagun izango ditugunak geroko etxeak arakatzen.

Kandelaria eguna bero etorri zaigu aurten. Gozo hartu dugu. San Jose loreak han-hemenka ditugu zelaiak zipristinduz. Desioa, ametsa gauzatzen ari zaigu.

Hala ere, zaharrek esaten duten bezala: Kandelaria bero, negua gero. Kontuz har dezagun, beraz, hobetze hau, eta jarrai dezagun negukoekin uda oparoa izango badugu.

Oharrak:

Festetan, soka-dantzan atera nahi duenak datoren ostiralean, hilaren 6an, ager bedi arratsaldeko 19:00etan Lanbide Heziketako eskolara.

Hotza izan zitekeen egoera politikoaren beste irudi bat. Baina horri erantzuteko, harako hark esaten zuen bezala, udaberriko goldaketarekin erantzun beharko genioke.

Zubietak



**PELLO
ARANBURU**

Uztaila arte luzatu da Euskal Txokoen hitzarmena

A benduko ohiko udalbatza plenoan luzatu nahi zen Euskal Txokoen inguruko hitzarmena. Baina azken orduan, desadostasunak eman ziren alderdien artean eta gaia mahai gainean geratu zen. Urtarrilaren azken astearteko plenoan, ordea, euskal Txokoen hitzarmena luzatzea adostu zen.



URRIAN IKASLE-TALDE HAU TOPATU GENUEN EUSKAL TXOKOEN EGOITZAN.

Euskal Txokoen hitzarmena luzatzearen proposamenak gehiengoaren oneritzia jaso zuen urtarrilaren 14an eginitako Soziokul-tura Batzordean. Eta proposamena aintzakotzat hartu zuen udalbatza plenoak. Erabaki honen arabera, Euskal Txokoen lana egiteko akordioa ekainaren 30 arte luzatuko da. Luzapen honen guztizko kostua

22.341 eurokoa izango da. Uztailaren ere martxan izango dira Euskal Txokoak, baina hilabete horretako hitzarmena 2004ko aurrekontuak onartu ostean sinatuko da.

Iaztik, NOAUA! da zerbitzu honen kudeaketaz arduratzen den elkarte.

Aurrera doaz Kultur Etxe berriko lanak

A ste batzuetako atzerapenez bada Aere, aurrera doa Kultur Etxe berriaren eraikina. Atzerapen hori ez omen da larritzeko modukoa eta udazkenerako bukatuta izango dira eraikitze-lanak.

Liburutegiaren ikasturte berria eraikin berrian hasi nahi da, hori da udal gobernuaren asmoa. Atzerapen gehiagorik ez bada, posible izan daiteke. Ekipamenduen inguruko lanak ere martxan dira. Aurrekontuak eskatuta daude eta besteak beste, informatika sarea, ikusentzunezko ekipamendua eta antzoki txikia nola hornitu aztertzen hasiak dira.



AZKEN EGUNOTAN TEILATU-LANAK EGITEN ARITU DIRA.

ZUBIETAKO BABES OFIZIALEKO ETXE BAT ESLEITU DU UDALAK

Zubietako babes ofizialeko pro-mozioan bazen mugikortasun urri iraunkorra duten minusbalituentzat gordetako etxebizitza bat. Urtarrileko azken plenoan esleitu zen Barazar kalea, 2-1 A helbidea duen etxebizitza. M.M.G.M. eta E. S. J.R. izan da etxea eskuratu duen bikotea.

ARKITEKTOAK BESTE URTE BETEZ ARITUKO DA LANEAN

Joxe Mari Bravo Albizu arkitek-tuari beste urte betez luzatu diote kontratua. Hirigintzako aholkularitza lanak egiteko luzatu dute Bravoren lan-hitzarmena.

PARROKIKO ERLOJUAREN MANTENUA

Aurreko urteetan bezala, AUsurbilgo parrokia eta Aginagako elizako erlojuen mantenerako dirulaguntza onartu du Udalak. Erlojuaren zaintzarako 482,59 euro jasoko ditu Salvatore parrokiak, eta beste hainbeste, Aginagako elizak.

ZUBIETAKO HERRI BATZORDEARI DIRULAGUNTZA

Zubietako Herri Batzarrak 2003 urtean izan dituen funtzionamendu gastuak arintzeko 6.238 euroko diru laguntza jasoko du, azken udalbatza plenoan hala adostu eta gero.

ITZ G
HEIKTEN
S. U. S. R. N. K. I. K. I. U. R.
K. N. T. I. K. I. A. T. X. I. K. I. A.
Euska prentsa
TEL. 33 217

TABERNA-JATETXEA
NTXET
EGUZKITZ
2.17 USU II.
TEL. 337 3

- E u n r k m n u k
- t r t k k
- I t r K n n t u k

Euskaraz jarri nahi al dituzu abizenak?

Duela urte batzuk Euskal Herrian Euskarazek egin zuen antzeko kanpainarik. Orain, Buruntzaldeko udalak dira (tar-tean, Usurbilgoa) abizenaren grafia euskaraz jartzeko ekimena sustatu nahian dabil-tzanak.

Abizenak euskarazko grafian jar-tzea uste baino errazagoa da. Edonork egin dezake. Buruntzaldeko udalen kanpaina hau, bereziki, 18-19 urte dituzten gazteei zuzenduta dago. Honen arra-zoia sinplea da: adin tarte horretan berritzen du gazteak nortasun agiria, eta behin agiriak egin behar dituen-an, errazagoa da abizenaren grafia euskaratzea.

Baina esan bezala, 19 urtetik gora-

koek ere, eskubide berbera dute. Beraz, segidan aipa-tzen duguna edonorentzat izan daiteke baliogarri. Baita 18-19 urtetik gorako-entzat ere.

Aurkeztu beharreko agiriak

1. Errolda agiria. Udale-txeko bulegoan egingo di-zute.

2. Jaiotzagiri literala. Jaiotterriko Bake Epaitegian egingo dizute.

Donostian erregistratuta bazaude, Donostiako Erregistro Zibilera joan behar duzu (Teresa de Calcuta Plaza, z.g. / 943 000 730).

3. NANaren fotokopia.

4. Famili liburua. (Ezkondua izanez gero edo seme-alabarik izanez gero).



LASARTE-ORIAN AURKEZTU ZEN KANPAINA HAU.

Egin beharrekoa

Aipatutako agiriak bildu eta herri-ko Bake Epaitegira joan. Bertan egingo dizute aldaketa. Zalantzaren bat izanez gero edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu herriko Bake Epaitegira. Usurbilgoa, 943 372 336.

Hobariak kontribuzioa eta ibilgailuen gaineko zergetan

Begibistan dira bi zerga. Kontri-buzioa, batetik; eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, bestetik. Kontribu-zioaren kasuan, familia ugarien alo-rrean, %50eko salbuespena aurrikusi da. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergan, aldiz, gutxiti fisi-koei zuzenduriko hobari bat aurriku-sita dago. Baina adi egon, eskaera egiteko epea otsailaren 13an amaitu-ko baita.

KONTRIBUZIOA

Familia ugarietako %50eko salbuespena.

Subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean, eskaera egin behar-ko dute udaletxean. Eskaerarekin bate-ra, familia ugarien titulu eguneratua aurkeztu beharko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza zerbi-tzuak luzaturikoa, hain zuzen ere. Interesatuek, titulu eguneratua izapi-detu gabe duten kasuan, Donostiako

Intxaurrondo auzoko Txara 1 egoitzara zuzendu beharko dute lortzeko.

Udaletxean hobariaren edo salbues-penaren eskaera eta aipatu titulua aur-kezteko epea: 2004ko martxoaren 15era bitartean. Interesatuek epea amaitu ondoren eskaera egiten duten kasuan, hurrengo urtetik aurrera izan-go du eragina.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Salbuespena: minusbalidoen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona boiek soilik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak dire-nean aplikatuko da.

Salbuespena ibilgailu batengatik bakarrik izango zaie aplikagarria horien onuradun diren subjektu pasi-boei.

%33 edo hortik gorako minusbalio-

tasun maila dutenak izango dira per-tsona minusbalituak.

Salbuespena gozatu ahal izateko inte-resatuek eskaera aurkeztu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matri-kula eta onuraren zergatia adieraziz. Udalak salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.

Salbuespena aplikagarria izateko, ibilgailuaren titularrak udal-erri hone-tan egon beharko dute erroldatuak.

Aurkeztu beharreko agiriak

- Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia.

- Ibilgailuaren Ezaugarri Tekniko-ko Ziurtagiriaren fotokopia.

- Gizartekintzak edo bere orde-z diharduen erakunde edo agintari administrazioak luzaturiko ziurtagiri originala. (Udaletxean fotokopia kon-pultsatua egingo da).

Eskaera egiteko epea: otsailaren 13a.

Sagarrondotik dator jaigiroa

Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarreak lau egunetako jaialdi oparoa antolatu du. Horri esker, aurtengo edizioak lagun askoren arreta beregatzeko osagai guztiak ditu. Otsailaren 26an hasiko da sagardo festa.

Joan den urteko edizioa ez zen oharkabean pasa. Zenbakiei begiratzeara besterik ez dago: 25.000 lagun baino gehiago bildu zituen iaz Sagarrondotik ekitaldiak. Dena den, iaz jaiaren gune nagusia Hernani izan bazen, aurtengo egitaraua, Urnieta, Usurbil eta Astigarragako udalerrietara ere zabaltzeko ahalegina egin da. Haur, gazte eta helduei zuzendutako saioekin belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ziurtatu nahi da.


IAZKO EDIZIOAN
25.000 LAGUN BILDU
ZITUEN SAGARRONDOTIK
EKITALDIAN

Otsailak 26, osteguna Has dadila festa!

Otsailaren 26an hasiko da eromena. Hortik aurrera, atsedenerako tarte gutxi emango du egitarau oparoak. Urnietako Sarobe antzokian hasiko da asteburu luzea. Besteak beste, Real Sociedad taldeak "Sagardoaren Mezulariak" ikurra jasoko du. Bingen Mendizabal, Mikel Urdangarin, Kirmen Uribe eta Rafa Ruedak eskainiko duten "Zaharregia, txikiegia agian" emanaldiarekin amaituko da inaugurazio ekitaldia.

Otsailak 27/28 Karpa bete doinu

Iaz bezala, Sagarrondotik ekitaldiaren aitzakiarekin puntako musika tal-



SAGARRONDOTIK JAIALDIAREN EKITALDI NAGUSIA IGANDEKOA IZANGO DA, ASTIGARRAGAKO HERRIAN HAIN ZUZEN.

deak hurbilduko dira gure artera. Hernanin ipiniko den karpatik honako talde hauek pasako dira. Otsailaren 27an, Fito&Fitipaldis, Reincidentes (Andaluzia), Sutagar eta Orisha's (Kuba) taldeekin leporaino beteko da aipatu karpa. Hurrengo eguneko saioa ere ez da makala. Otsailaren 28an, Ari (Madrid), Kuraia, Ojos de Brujo (Katalunia) eta Fermin Muguruza eta Kontrabanda arituko dira zuzenean. 1.200 pertsonentzat egokitutako karpa horretan, ez dira bestelako zerbitzu guneak faltako, janaria eta edaria kasu.

Otsailak 29, igandea Sagardo, Astigarragako alkate!

Orain arte azaldutako gutzia gutxi balitz, aurtengo edizioko ekitaldi kuttunena azken egunerako utzi da; otsailaren 29an, igandez, Astigarragak bilduko duena: Euskal Herriko II. Sagardo Mostra. Euskal Herriko 60 sagardogileren sagardoaz gozatzeko aukera izango dugu. Bide batez, euskal produktuen azoka ere antolatuko da.

Trikitilariek, dantzariak eta bertsolariak alaituko dute mostra eta baita euskal produktuen azoka ere. Dena prest dago. Orain, gure esku dago ekitaldien arrakasta ziurtatzea. On egin!

DEMA-PLAZAN HERRI KIROLAK

Sagarrondotik jaialdian sagardoa izango da protagonista nagusia. Baina ez bakarria. Musika saioak, bertsolariak, trikitilariak, dastaketa komentatuak eta herri-kirolak ere antolatuko dira sagardoaren lurraldean. Nola ez, Usurbilgo dema-plaza izango da herri-kirolen sehaska. Lehia herri artekoa izango da, otsailaren 28an, larunbata, hain zuzen. Parez pare arituko dira Usurbil, Hernani, Urnieta eta Astigarragako ordezkariak.



Kilimak

Sagarrondotik jaialdia. Zer da hori? Handik edo hemendik begiratu desberdina da. Kanpotik begiratu-ta, paretean dagoen kartelaren aurrean jarrita, sagardoaren inguruan antolatutako festa handi samarra da. Parrandarako aitzakia polita izan daiteke. Tripetatik begiratu, kartel bihurtu behar den orri zuriari begira jarrita, izugarritzko erronka da, lana, endredoa askotan. Hamaika arazo, erantzun onena espero duten hamaika telefono dei, zapore gozoarekin bukatu nahi diren hamaika bilera, hamai-kari hamaika mesede eskatu beharra, hamaika buruhauste... eta momentu gozoren bat tartean.

Antolatu beharrak eta ondo antolatu nahiak urduritasuna dakar, urduritasunak kilimak sortzen ditu sabelean, kilimek azkazalak jaten dizkizute eta gerta daiteke egun batez gutxienez irribarre egiten ahaztea. Eta egun batez baldin bada gaitzerdi.

Zurrunbilo horretan Juan Gorriti eskulturgilearen etxera joatea egokitu zitzaigun,

Nafarroako Arribera, hain juxtu Sagarrondotik jaialdirako lantxo bat enkargatzera. Eginbeharren zerrendan geneukan apuntatuta: Gorritirekin hitz egin.

Eta urduritasunaren kilimak bestelakoak bihurtu ziren orduan; umetan aitona zenak egiten zizkidan kilimen usaina hartu zuten. Gorritiren lehenengo bi muxuak hartzerako sentitu nituen bere bizarrak eginiko kilimak masailtan, gozogo, eta ordurako susmatu nuen arratsalde hura berezia izango zela. Kilimak ez ziren gelditu, arratsalde guztian sentitu nituen bihotz ondoan eta sabelean. Bikaina da Gorriti. Nire kilimen usaina desberdina da ordu ezker. Eta zereginen zerrendatik kendu dut. "Gorritirekin hitz egin" Sagarrondotik jaialdiak egin dizkidan oparien zerrendara pasatu dut.

Horixe nahi luke Sagarrondotik jaialdiak, zuei denoi kilima gozoak egitea. Eta prestatutako egitaraua, antolatutako guztia, mimo izugarritz eginga dago, Gorritik



bere eskulturak egiten dituen moduan eta lagunak hartzen dituen eran. Sagardoaren kultura sustatzea da nahia, baina, urrutirago; gerturatzen diren denei eta gerturatzen den bakoitzari momentu on bat, gozo bat pasaraztea da erronka, kilima txikiak egitea.

Sagarrondotik 2004 jaialdiko irudia kosk egindako sagarra da.

Sagarra prest-prest izango duzue otsaila bukaerako. GOGOZ KOSK EGIN!

Amagoia Mujika, Sagarrondotik prentsa arduraduna

Sagarrondotik 2004, egunez egun

OTSAILAK 26 OSTEGUNA
URNIETA

INAUGURAZIDA SAROBEN

- Harrera ekitaldia, sagardogileak, Kofradiak eta Elkartek aurkeztua. Real Sociedad, futbol taldeari "Sagardoaren Mezulariak" ikurraren ematea, European zehar Gipuzkoaren izena zabaltzen ari delako iaz eginiko lan onaren ondorioz. "Zaharregia, Txikiegia agian" olerki eta musika emanaldia (Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda).

OTSAILAK 27 OSTIRALA
HERNANI

MUSIKA KARPA ERRALDOIAN

Fito & Fitipaldis (Euskal Herria), Reincidentes (Andaluzia), Su Ta Gar (Euskal Herria), Orisha's (Kuba). 12.000 pertsonentzako lekua duen karpa, Txozna guneak, disko jartzaileak, oilaskoak, bokatak, sagardo kupelak...

OTSAILAK 28 LARUNBATA
USURBIL

HERRI KIROLAK DEMA-PLAZAN

-Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil arteko lehia ikusgarria: txingak, sagar biltzea, zaku lasterketa, ingudea, aizkora, trontza, harri jasotzea, sokatira... Sagardo dastaketa, taloak, txorixoa.



OTSAILAK 28 LARUNBATA
HERNANI

MUSIKA KARPA-ERRALDOIAN

Ari (Katalunia), Kuraia, Ojos de Brujo (Katalunia), Fermin Muguruza & Kontrabanda.

OTSAILAK 29 IGANDEA
ASTIGARRAGA

EUSKAL HERRIKO II.
SAGARDO MOSTRA

Goizeko 10:00etatik aurrera herrian barrena: Euskal Herri osoko 60 sagardogilaren mostra, Euskal Herriko produktuen azoka, Sagardoaren museo ibiltaria

12.00etan "Kata Komentatua" Xabier Kamio enologoaren eskutik.

13.30etan Patxi Perez eta Iparraldeko dantzarien ikuskizuna "Dantza Piko".

17.00etan bertsolariak: Mendiluze, Egaña, S.Lizaso, M.Lujanbio, trikitilariak.



Kezka eragin du errauste-plantaren egitasmoak

Hasiera batean, San Markos Mankomunitateak Urnietan zehaztu zuen errauste-plantaren kokalekua. Baina egitasmoak ika-mika ugari eragin zuen urnietarren artean. Honek kokalekuaren inguruko eztabaida berpiztu du. Kezka nagusi da Zubietan. Baina ez bakarrik zubieta-
ren artean.



ARALARREK UDARREGIKO ARETOAN AZERTU ZUEN ERRAUSTE-PLANTAREN EGITASMOA.

San Markosekoak bezala, Txingudiko Mankomunitateak ere, beste errauste-planta bat ezartzeko asmo sendoa zuen. Baina Foru Aldundiak, ordea, planta bakar bat ezarri nahi du herrialde osoan. Honen ondorioz, kokalekuaren gaia inoiz baino biziagoa da.

Urtarrilaren 22an, UHLk deituta, Udarreregiko aretora hurbildu ziren herritarrak hitzaldi interesgarri baten lekuko izan ziren. Urnietako Arnasa plataformako Patxi Lozanok eta Xabier Landak, San Markos

Mankomunitateko lehendakari oihak, errausketa-plantari buruzko datu aipagarriak plazaratu zituzten.

Baina hitzaldi hori ez ezik, errauste-plantaren egitasmoak ere, bestelako mugimenduak eragin ditu. Aralar alderdikoek ere, Udarreregiko aretoa hautatu zuten Foru Aldundiak dituen egitasmoak jorratzeko. Urtarrilaren 31n, Euskal Herriko hainbat aralarkide bildu ziren errausketa-plantaren inguruan zein jarrerara hartu definitzeko.

EHNA agiria tramitatzen

Urtarrilaren 31n, UHLko ordezkariak EHNA agiria (Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena) tramitatzen aritu ziren udaletxe sarrerako aterpean.

Aurrerantzean ere, izango da EHNA tramitatzeko aukera gehiago. Hiru argazki eta udaletxean eskatu beharreko errolda-agiria behar dira naziotasun agiria eskuratu ahal izateko.



Otsailaren 7an, Herri Batzarra Aitzagan

Otsailaren 7an, larunbata, Herri Batzarra egingo da Aitzaga elkar-
tean. 11:00etan hasiko da eta bi gai lan-
duko dira: Espainiako hauteskundeak
eta Aitzaga taberna.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olagandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

PATRI

JATE TXEA

- Etxeareko menuak
- Plater trankimatuak
- Ogintzekoak

Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

Menuak astean zehar eta

ZENDOIA taberna

Kale nagusia 35
Telf: 943374021

asteburuetan menu bereziak

ARRAINDEGIA

PELLO

Urt: xKI /
T13 21
JSU L

**MIKEL
IZ GI E**

ELEKTIZATE

Urt. 7
R le
el - 111

MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etxe st k l , 3
T E F 3 3 1 1

ITURGINTZA

.....

**J SE
NGU EN**

.....

T E F 3 3 7 2

Hollywood egun batez

Inauterietarako gaia proposatzeko Laukera izan da azken egunotan. Proposamen asko jaso dira tabernetan ipinitako orrialdeetan, baina azkenean "Hollywood" izan da garaile irten dena.

Iaz bezalaxe, aurten ere haurrak izango dira eguneko lehen protagonistak. Goizeko 11:00etatik aurrera, tailerrak eta jokuak izango dira pilotalekura hurbiltzen direnentzat. Arratsaldean, aldiz, desfilea izango da ekitaldi nagusia. Desfilean parte hartzen dutenen artean, bi sari banatuko dira. Tabernaz taberna ibiliko da desfilea, eta epaimahaikide lanetan tabernariak eta herritarrek arituko dira. Alde batetik, tabernariak emandako



puntuak zenbatuko dira. Eta bestetik, tabernan bertan aurkitzen diren herritarrek emandakoak.

Gaueko 21:00tan egingo da boto zenbaketa pilotalekuan, eta bertan banatuko dira aipatu bi sariak. Beraz, badakizue, animatu eta parte hartu desfilean!

SANTIXABEL JAIK PRESTATZEKO LEHEN BILERA

Inauterietarako deialdia egin berri da. Zubietan ere, hasi dira jaietan pentsatzen. Otsailaren 6an, arratsaldeko 19:00etan, Lanbide Eskolan geratu dira soka-dantzan prestatzen hasteko.

Uztaila urruti dagoela dirudien arren, Santixabel jaiek ere denon arreta merezi dute. Jai nagusiak antolatzeke lehenengo bilera laster egingo da, otsailaren 11n, asteazkena, arratseko 19:30etan. Aurrekoetan bezala, honakoan ere Udaletxean egingo da jaietarako bilera.



Inauteri Jaia: otsailak 21, larunbata

GOIZEAN: HAURRAK NAGUSI

Goizeko 11:00etan frontoian umeentzako jokuak eta tailerrak izango dira. Mozorrotuta agertzen direnentzat sorpresaren bat ere izango da.

ARRATSALDEAN: DESFILEA

Arratsaldeko 18:30etan herriko fron-

toian koadrilen elkartzea eta desfilearen hasiera. Giroa animatzeko trikitilariak izango ditugu. Desfilea tabernaz taberna egingo da eta bi sari banatuko dira. Lehena, tabernariak erabakiko dutena. Eta bigarrena, desfilearen inguruan dabilen jendeak aukeratua. Aurtengo gaia: Hollywood.

Kz Guneak 16 urteko gazteei ireki dizkie ateak

Urte berriarekin batera, Kz Guneako arau batzuk ere aldatu egin dira. Aurrerantzean, 16 urteko gazteek ere sartzeko eskubidea izango dute. Lehen, Kz Gune guztietan aritzeko adin minimoa 18 urtekoa bazen, orain 16 urtekoak ere onartzea erabaki da. Hori bai, adinez nagusi ez direnen kasuan, gurasoen baimena aurkeztu beharko da. Segidan, otsailean egingo diren ikastaro guztien xehetasunak.

IKASTAROAK

OINARRIZKO INTERNETA (20 ordu)
Otsailak 16-27, goizeko 9:00etatik 11:00etara.

Otsailak 16-27, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

NAGUSIWEB (10 ordu)

Otsailak 23-27, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.



KZ GUNETIK PASA DEN AZKEN TALDEA DUZUE HAUXE.

M N CENILL
k n- n t u r t
t l l u k
r z l t z - l u k
n t u r - l u k r l r
Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66


 **kutxa**
gizarte ekintza


TSU S.L.
serigrafia
Tampografia
Tel.: 943 371 954 Fax: 349 376 551

Jaso zure e-postan NOAUA! aldizkariaren edizio elektronikoa

Hamabostero sarean ipini ohi Hdugu NOAUA! aldizkariaren edizio elektronikoa. Duela gutxi mar-txan jarri genuen zerbitzu berriari esker, aurrerantzean, gure aldizkariaren edizio elektronikoaren jakinarazpena jaso ahal izango duzu zure e-postan bertan. Eta egun bat lehenago. Ostegunetan zintzilikatzen baitugu aldizkaria Interneten.

Interneten ibiltzeko ohitura al duzu? Aldizkari honen edizio elektronikoa zure e-postan jaso nahi? Oso erraza da, noaua.com web gunean bada "Jaso aldizkaria zure posta elektronikoan" izeneko atala. Klik egin, datuak bete eta NOAUA! aldizkaria Interneten jar-tzen dugun bakoitzean, zure e-postan bertan jasoko duzu jakinarazpena.



ALDIZKARIAREN EDIZIO ELEKTRONIKOA
ZURE E-POSTAN BERTAN JASO DEZAKEZU.

Eskura ezazu noaua.com web gunean Fermin Muguruzaren CD-single bat

Oztopoak oztopo, aurrera doa Fermin Muguruza eta Kontrabandaren "Komunikazioa Tour" izeneko bira. Metak zigiluak, biraren berri eman asmoz, hiru kantuz osaturiko CD-single bat argitaratu berri du. Gure web orrialdean bost ale zozketatu behar ditugu. Sar zaitetz noaua.com gunean eta eskura ezazu CD horietako bat.

"Jaso aldizkaria zure posta elektronikoan" izeneko atalean sartu. Hutsuneak bete eta hamabostero zure e-postan jasoko duzu

N O A U A ! aldizkariaren edizio elektronikoa. Ez hori bakarrik, otsailaren 9tik aurrera, astelehenero, CD-single bat zozketatuko dugu aldizkariaren edizio digitala eskuratzeko dutenen artean.

Fermin Muguruzaren lantxo honek hiru kantu jasotzen ditu, tartean, orain arte argitaratugabea izan den abesti bat: "Zubizuria Disphoria Remix".



Inkestak noaua.com gunean

Urbanizazio berria onuragarria izango al da Zubietarentzat?

Bai	% 55.56
Ez	% 33.33
Denborak esango du	% 11.11

Zein web gune mota bisitatu ohi duzu?

Informazio orokorrekoak	% 36.36
Kirol izaerakoak	% 09.09
Musikako web guneak	% 27.27
Orrialde erotikokoak	% 09.09
Zerbitzuen ingurukoak	% 18.18

:: ASTE HONETAKO INKESTA ::

Txotx garaiko prezioak bidezkoak iruditzen al zaizkizu?

- Bai, jan-edandakoarekin parekatzen da.
- Ez, garestia iruditzen zait.
- Beste urteetako prezioen parekoa da.

Botoa eman www.noaua.com web gunean

TXOTX GARAIA, SAREAN

Gure atarian sartzen bazara, G-inguruko sagardotegien datu esanguratsuenak topatuko dituzu. Baina sagardoak bestelako orriak ere baditu Interneten. Argia astekariaren web orrialdean topatu dugu gune osatuenetako bat. Helbide honetan sartu, www.argia.com/sagardoa, eta sagardoaren munduari buruzko datu esanguratsuenak topatuko dituzu bertan. Web gune hau atal hauekin osatzen da: Sagardogileen gida, Sagardoa Euskal Herrian, Sagardoa munduan, Tresnak, Sagarra, Prozesua, Gaitzak, Loturak...

L T ILL E

**ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K**

IZTTTX K L.F . (3) 3 2 35-3 33
E.H.F M I 21

Argia - Gasa - Berokaitza
J. r z

Bizkarra 1, 1.esk.

37 29 37 - 659 602789

Oihana Blanco judo kirolaria, Joko Olinpikoei begira

Astigarragan bizi den arren, ordu asko egiten ditu Oiarde kiroldegian. Usurbilgo Judo Taldeko harribitxia da Oihana Blanco. Eta bueltaka ibili behar badu ere, oso pozik dago gure artean. Hala aitortu digu senior mailako Espainiako txapelkun berriak.

Hirugarrengoa lortu du. Azken bi txapelketetan txapelkun-orde geratu ostean, bazuen txapela janzteko gogoia. Oihana Blanco pozik dago baina ez omen da lan erraza izan: "senior mailan, arerioak gogorrak izan obi dira. Ez da erraza irabaztea", adierazi digu Usurbilgo Judo Taldeko kideak.

Urte olinpikoan gaude eta Oihana Blancok badu Greziara joateko aukera.



JUDDAREN ELITEAN DAGO OIHANA BLANCO.

Talde pre-olimpikoan sartu da eta, orain, Joko Olinpikoetara joateko meritua egin behar ditu. Nazioarteko txapelketa ezberdinetan egiten duen lanaren baitan dago Greziarako txartela. Oihanak adierazi digunez, "Inauterietan Alemaniara joango naiz. Hango txapelketan parte

hartu eta gero, astebete egingo dugu bertan entrenatzen. Martxoan, Estonia, Polonia eta Italiara joatekoak gara".

Txapelketa horietan egiten duen lana oso garrantzitsua izango da. Hasteko, bere taldeak sailkapena eskuratu behar du. Eta ondoren, ranking baten arabera, puntu gehien lortzen duen kirolaria izango da Greziara joango dena. Oihanak aukera asko dituen arren, lan asko egin beharko du oraindik.

Urtarrilaren 24ko astebukaeran eskuratu zuen Espainiako Txapelketa, Almerian hain zuzen. Ordu horietan, Astigarraga urez gainezka zen. Asteburu ilun horretan, pozik zegoen famili bakarra zen Oihanarena. Kalteak kalte, alabak erdietsiriko garaipena pozteko modukoa baitzen.

Elitean jarraitzen du Usurbilgo Judo Taldeak

Urtarrilaren 24ko asteburuan, Espainiako Senior Txapelketa jokatu zen Almerian. Oihana Blanco ez zen Usurbilgo Judo Taldeko izar bakarra izan. Oihana Blancok (-48 kg) urrezko domina eskuratu zuen, eta honi esker, zirkuitu pre-olimpikoan lehiatuko da datozen asteetan: Alemanian, Polonian, Roman eta

Estonian. Baina Almerian beste hainbat lagun ere nabarmendu ziren: M^a Jose Sardon (+78 kg) eta Iker Lizarribar (-100 kg) zilarrezko dominaren jabe egin ziren. Ibai Peña (-66 Kg) finalurrekoe-tara iritsi zen eta azkenean meritu handiko laugarren postua eskuratu zuen.

Lehen aldiz, Gipuzkoako talde batek hiru domina lortu ditu Espainiako Senior Txapelketan.

MARTXAN DA PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIA

Otsailaren 7an, larunbata, Esku Pilotako Gipuzkoako Txapelketa Herrikoian jardunaldi berri bat jokatu da. 19:00etatik aurrera, pilotari hauek lehiatuko dira: Juantxo-Arana (Aretxabaleta), Garmendia-Aranburu (Lezo) bikotearen aurka. Errekondo-Portularume, Zubizarreta-Korta (Azpeitia) bikotearen aurka.

Hurrengo saioak !

FUTBOLA

Otsailak 7, larunbata
Emakumezkoen liga: Usurbil FT- Tolosa CF.
16:30etan Harane futbol zelaian.



Otsailak 14, larunbata
Emakumezkoen liga: Mutriku FT- Usurbil FT.

Otsailak 28, larunbata
Emakumezkoen liga: Usurbil FT, atseden.

ESKUBALOIA

Otsailak 7, larunbata
Kadeteak: ITE Hondarrabia - Usurbil KE.

Otsailak 14, larunbata
Kadeteak: Usurbil KE - Ereintza Aguaplast.

MENDIA

Otsailak 15, igandea
Aralar mendira irteera. Antolatzailea: Andatza KKE.

PILOTA

Berria Taldekako Pilota Txapelketa Aginagan
Otsailak 14, larunbata
Txaruta (Baztan) / Murumendi (Beasain).
17:00etan Aginagako pilotalekuan.

Otsailak 21, larunbata
Anaitasuna (Azkoitia) / Berriotxo (Elorrio).
17:00etan Aginagako pilotalekuan.

Antolatzailea: Andatzpe-Peña Pagola, Hernani eta Urnieta pilotak elkarrekin. Babesleak: Urnieta, Hernani eta Usurbilgo Udala.



ZUMET MENU K

(Guts n z 21 un nez t)

- Etx k h t f - r n s t
- l r r z
- Its sk nts l h z r truf z r z
- Z u x n ur z t r k c s s k
- s lts z
- s z u n t t u r , n t k l
- r z h r s lts t n
- Etx k z k n uruk n s t n
- t x f

Tx k 1 11 3 27 13


r z 27, 5 ur (rts n k)



Kafe berezia!

San Esteban kalea, 8

Telf: 943 36 27 70



Reddy, gure laguna

Kaixo irakurle guztioi, LH1eko ikasleak gara. Aurten lagun berri bat daukagu gure artean, bera gukamaio bat da eta bere izena REDDY da. Reddy Britaina Handikoa da eta ingelesa ikasten laguntzen digu.



Gauza interesgarri asko erakusten dizkigu Reddyk, aste honetan gorputz atalei buruzko abesti bat erakutsi digu. Nahi al duzue ikasi?


*HEAD, SHOULDERS, KNEES AND TOES
KNEES AND TOES*

*HEAD, SHOULDERS, KNEES AND TOES
KNEES AND TOES*

*AND EYES AND EARS AND MOUTH AND
NOUSE*

*HEAD, SHOULDERS, KNEES AND TOES
KNEES AND TOES*

Erraza, ezta? Ea orain dantzatzeko gai zareten. Abestian agertzen diren gorputz atalak ikutu behar dituzue. Beheko marrazkiak asko lagunduko dizue.



Ganbarra
Opari, jantziak eta abarretan
Ez duzu ezer inongo?
Muzte lanea 4 - Leizola! Tfno: 943 38 55 49

K m
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA TEL. 36 61 97

Knk l
- l. ntz r
- Gz n zk n rr p
ll ur ntz k
- Fix r k h r
Luzan k
Zubiaurrena, 3 33 17 7

NOAUA!ko LEHIAKETA!!

Animatu eta parte hartu Noaua!ko lehiaketa ikusgarrian! Etxeko txikientzako liburu sorta hau irabazi dezakezue bi galdera hauek erantzuten badituzue.

SARIA: etxeko txikientzat euskarazko hiru ipui zoragarri eta gurutzegramak



GURUTZEGRAMAK: "Hiria". Eranskailuak eta guzti!

Jose Ignazio Ansorenaren "GLORIA" ipuia

Joxantonio Ormazabalaren "GORRITXO eta BELTXIKO" ipuia

Tamara Danblon-en "ARREBARTZAREN AUKERA" ipuia

ERANTZUNAK BIDALTZEKO AZKEN EGUNA

OTSAILAK 14


Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea,
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Noaua! Kultur Elkarteiko buzoian
E-maila: erredakzioa@noaua.com

1. Noaua! Kultur Elkartearen 2004ko egutegian otsailko hilabetearen agertzen diren baserrien izenak esango al dizkiguzu?
2. Eta egutegian agertzen den azkeneko argazkia, herriko argazki dotore hori, zein urtetakoa da?

174. Ichiaketao erantzunak hauek dira:

1. Esango al zeniguke Noaua! hamaboskariko 95. zenbakiko azalean nor den agertzen den herritarra? **ALEJANDRO TAPIA**
2. Eta zertan egin du lan? **PINTOREA**

Irabazlea **IKER AJTUBE** izan da. Pilar Cristóbal-en "Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak" liburua, Mikel Errazkin-en "Airborn" musila ed a eta "Segapoteen mezu sekretuak" unoretako gida liburuxka irabazi dituzte. Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan. **ZORIONAK!!**



Zain dituzu 2003ko tapa eta aurkibidea

Agur esan diogu 2003 urteari. **NOAUA!** guztiak bildu eta 2003ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue **NOAUA! Kultur Elkarte**ko egoitzan.

Tapak eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek,

aldiz, 3 euro ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1'20 euro, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernaketa berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2003ko egutegiak ere, arrakasta handia izan du. Etxe guztietan ale bana utzi dugu, doan. Beste bat eskuratu nahi baduzu gure egoitzatik pasa (prezioa, 3 euro).



ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, Inauteriak, NOAUA! Txiki, Udal Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero
* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Goardiako farmaziak

- Otsailak 6, ostirala**
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain
- Otsailak 7, larunbata**
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte / Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
G: Etxebeste, Elkano 9 Hernani
- Otsailak 8, igandea**
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Etxebeste, Elkano 9 Hernani
- Otsailak 9, astelehena**
E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Otsailak 10, asteartea**
E/G: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Otsailak 11, asteazkena**
E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Otsailak 12, osteguna**
E/G: Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 Lasarte
- Otsailak 13, ostirala**
E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Otsailak 14, larunbata**
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte / Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
G: Aizpuru, Latxunbe Berri 11 Hernani
- Otsailak 15, igandea**
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Aizpuru, Latxunbe Berri 11 Hernani
- Otsailak 16, astelehena**
E/G: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Otsailak 17, asteartea**
E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
- Otsailak 18, asteazkena**
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Oa, Kontzeju Zaharra 1 Usurbil
- Otsailak 19, osteguna**
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Tanko, Idiazabal 39 Urnieta
- Otsailak 20, ostirala**
E/G: Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani
- Otsailak 21, larunbata**
E: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
E/G: Rodrigez, Nagusia 42 atzek. Lasarte
- Otsailak 22, igandea**
E/G: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- E:Egunez G:Gauzez E/G:Egunez eta gauzez

2004ko egutegi osoa noaua.com helbidean

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40	09.05	09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40	13.05	13.25		10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05	17.15	17.40
18.00	18.25	18.35	18.55	17.45	18.05		18.30
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.20	19.25**		18.45	19.05		19.30
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05	19.15	19.40
19.40		20.05	20.25		19.30	19.35	20.00
20.00	20.20	20.30		19.45	20.05		20.30
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.20	21.25	21.45	20.45	21.05	21.15	21.40
21.00	21.25	21.35	21.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.15	22.35	22.45	23.05	21.45	22.05	22.15	22.40
22.00	22.25	22.35	22.55				
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00:00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02:00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04.00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06.00		06.25	06.45				

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

*Aiatic dator ▣ Asteburutan
▣ Soilik ▣ Larunbat lanegunetan
▣ larunbata gauzez

Zubieta-Donostia TST autobusak

- ASTEGUNETAN**
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45
- LARUNBATETAN**
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
- JAI EGUNETAN**
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
- Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)
- * Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Otsaila							
As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.	
						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldedia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen edo inguruan, konpartitze-ko. 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 90 27 62.
- Pisua alokatu edo konpartitu nahi nuke. Nirekin harremanetan jartzeko deitu, 647 973 844.
- Pisu bat bilatzen ari naiz, alokatzeko edo konpartitzeko. Oso urgentea da beraz, pisurik alokatzeko baduzu edo gelaren bat, deitu mesedez hainbat arinen 615 71 01 64 telefonora (Gotzon).
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Bost pertsonako familia bat gara eta alokairuan dagoen pisu baten bila gabiltza Usurbil edo inguruko herrietan. 620646769

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro / 15 m 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Goizetan etxeko lanak egiteko prest nago. 943 37 64 49.
- Umeak zainduko nituzke, edozein ordu-tegian. Deitu 943 37 10 32 telefono zenbakira.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Deiezadazu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Taberna batean egingo nuke lan edo

antzeko zerbituetan, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Martxan jartzeko prest dagoen kopia-gintza eta grafika zerbitzuetako negozio batetarako sozioak behar dira (neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf: 687470177.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Duela gutxi koilarea galdu nuen Iturralde botikatik kaxkora bidean. Topatu baduzu deitu 943 36 11 15 telefono zenbakira.
- Laguntzaile bat behar da Lasarteko ile-apaindegi baterako. 943 37 71 90 / 629 40 21 81.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean egina ahaztu genuen. Topatu baduzu deituidazu: 943 37 20 34.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Munalurra auzoan (Olarrondo inguruan). Topatu baduzu deitu 943 36 27 79 telefono zenbakira.
- Zilarrezko brotze bat galdu nuen San Esteban kaletik, okindegia eta supermerkatu bidean. Topatu baduzue deitu 943371237 telefono zenbakira.

Txerrimunik ordainetan - Oharrak

Doaneko zerbitzuak dira.

Gure bulegora ekarri edo postaz bidali aipatu nahi duzun oharra.

Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Iñaki!

Urtarrilaren 23an urte bat bete zuen gure Iñakik. Zorionak potoko eta muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak Enara!

Urtarrilaren 18an zenbat urte bete zituen Enarak? bat, bi, hiru, lau... sardina-bakalau! Zorionak Enara!!!

Zorionak Garazi!

Otsailaren 11n zazpi urte egingo dituzu. Dagoeneko oparien zain egongo zara, ezta? Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez. Ondo pasa zure egunean!



Zorionak Ianire!

Otsailaren 8an bi urte beteko dituzulako, muxu asko etxeko guztien partez.



Zorionak Inaxi!

Otsailaren 14an egun polit bat pasa dezazula opa dizugu etxeko guztiok!

JAIOTZAK

- Malen eta Unax Rezola Estevez. 2004ko urtarrilaren 17an.
- Mikel eta Enara Villafafila Illarramendi. 2004ko urtarrilaren 31n.

* Usurbilgo Bake Epaitegiko datuak.



TXIRIBOGA
TABERNA

ntx · k, · k · t · k
t · l · t · r · k · n · n · t · u · k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98



txirriStra
TABERNA

- Plater kombinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 943 36 04 66

Agenda !



OTSAILAK 7, LARUNBATA

- 11:00etan Herri Batzarra Aitzaga elkarte-
 an. Gaiak: Espainiako hauteskundeak eta
 Aitzaga taberna.

OTSAILAK 11, ASTEAZKENA

- Santixabel Jaiak antolatzeke lehen bilera.
 19:30etan Udaletxean.

OTSAILAK 15, IGANDEA

- Aralar inguruko itzuliaren lehen etapa.
 Antolatzailea: Andatza KKE.

KZgunea

IKASTAROKAK OINARRIZKO INTERNETA

- Otsailak 16-27, goizeko 9:00etatik
 11:00etara.
- Otsailak 16-27, arratsaldeko 18:00eta-
 tik 20:00etara.

NAGUSIWEB

Otsailak 23-27, arratsaldeko 16:00etatik
 18:00etara.

MINTEGIAK

“Zure finantza entitatearekin lan egin I”.
 Otsailak 17 asteartea, goizeko 11:00etatik
 13:00etara.

“Fagor, gida gastronomikoa”.

Otsailak 18 asteazkena, arratsaldeko
 16:00etatik 18:00etara.

“Winzip (on line)”.

Otsailak 19 osteguna, arratsaldeko
 16:00etatik 18:00etara.

AZTERKETAK

IT Txartela. Otsailak 20 ostirala, goizeko
 11:00etatik 13:00etara.

Musikaren txokoa !



Oihenart eta Goia Aribek, ilargi-minez

Maddi Oihenart,
 hainbat musikari,
 aditu eta kritikoen
 aburuz, euskal musikak
 duen ahots aberatsen,
 zintzoen eta gutxien
 kutsatutakoaren jabe da.



Belaunaldi berriak harritzen dituen
 kantatzeko modu baten oinorde-
 koa. Josetxo Goia-Aribek musika
 tradizionalako elementu eta tresnak
 erabiltzen ditu bere musikan ikus-
 puntu pertsonal batetik lantzeko
 bere konposizioak.

Jazza, kantu tradizionala, musika
 berriak eta abar luze bat uztartzen

dituen disko hunkigari-
 rri bat, Josetxok idatzi
 eta Maddik maisuta-
 sunez kantatu duena.

Musika instrumen-
 tal hutsez hiru disko
 plazaratu ditu saxofo-
 nista iruindarrak, baina oraingo
 honetan, Maddi Oihenarten aho-
 tsarekin proiektu berri batean bar-
 neratu da. «Maddi da lan honen
 protagonista. Maddiren ahotsa beti-
 danik maitatu izan dut ukitu egiten
 nauelako, eta elkarrekin zerbait egi-
 ten saiatu gara», adierazi berri du
 Josetxok.

Egin kontu !

Sei Orduetako beste protagonistak

Amador Granado usurbildar
 Arxirindulariak ere Euskadiko
 Sei Orduetan hartu zuen parte.
 Donostiako Belodromora joan baino
 ordu batzuk lehenago, NOAUA!ko
 bulegotik pasa zen Jose Andres
 Blanco txirindulariarekin batera.
 Eskuetan dute Sei Orduetan jantzi
 zuten maillota, Euskadiko selekzioa-
 rena.

Pozik topatu genuen Amador
 Granado. Joko Paraolimpikoetara joa-
 teko aurre-selekzioan sartu berri da-
 eta. Athenasen ospatuko dira Jokoak,
 Paraolimpikoen kasuan, irailaren
 amaieran. Txartela eskura du baina
 oraindik gogor egin beharko du lan.



N • I
 II n
 MIST
 S l r u n , l z ,
 m k ! t m n k u r
 Zu ur n , 5 - 33 1 51

Urtinea
 I r k - I r l n r k
 L r s r l k - K r k
 San Esteban
 Tlf.: 943 36 22 55


BORDATXO

 PINTXO BEREZIAK
 Zubiaurrenea, 5
 Telf: 943 37 10 42

HASI DA HURTENGO TXOTX GARAIIA!




Araeta



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera!

Tel: 943 36 20 49 - 943 36 66 04
Faxa: 943 36 60 73
Arbitzabidea 20.160 7URIFETA
www.araeta.com

Fain duzu aurtengo sagardoa. Txotx!



Saizar
Sagardotegia

Kalezar Auzoa, 33
48940 BILBAO
GIPUZKOA
Tel. 943 362 228
www.sidresaizar.com

TXOTKETIK
eta botiletan
salgai

Urte guztian egunero irekita
astelehenetan ezik.

AGINAGA
SAGARDOTEGIA



Tel: 943 36 67 10 - 37 06 68 AGINAGA

ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA



Zubieta, tel: 943 36 12 29

*Irudi berri bat
denboraldi berri batentzako*

-Igande gauean itxita

Egin txotx!

UDARRREGI IKASTOLA



PARTAIDE
IKASTOLAK



MATRIKULAZIO EPEA:

Otsailak 16tik -
27ra



2-16 URTE BITARTE:

- D EREDUA
- INGELERA 4 URTETIK AURRERA
- ORIENTABIDE ZERBITZUA
- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK



- JANGELA
- GARRAIOA
- ESKOLA KANPOKO JARDUERAK

Dei ezazue telefono zenbaki honetara: 943 36 12 16